



## HAUTSAK HARROTZEN

Ukaezina den datu bat da. Euskal herritarrak drogatuta egiten gara. Euskal Herrian droga kontsumitzen da. Desfasearen amaraunak loturik gauzka. Alkohola amaraunaren hari bat. Ziurrenik ez luzeena. Komunikatzen sudurzulo zurituekin ateratzea parrastada bat botatzea bezain arrunta da. Gogorra, baina egia.

Normalizaturik dago kontsumitzea. Normalizaturik eta ongi ikusia. Arraroa zu, zerbeza eskutan ezagutzen ez duzun tipo batek tiro bat eskatzen/eskaintzen dizunean, uko egitean. Sentsazio berdingabea omen den horri uko egitean. Arraroa zu, txosna bateko barraren gainean arrasto bat prestatzen ari denari kargu hartzean.

Urte batzuk atzera, ibiltzen ziren ezkutuan kaka banatzaileak. Bat baino gehiago izan ziren etxera bizkarra berotuta itzuli zirenak. Egin zen drogaren inguruko gogoeta sakon bat, ezkerretik. Identifikatu zen arazo larri baten aurrean geundela. Euskal Herrira kaka sartzea, kasualitatekin urrun zegoen fenomeno zela. Jakina zen hautsa torturatzen gaituzten horien eskuetatik sartzeko zela. Euskal gazteria kakaztu nahi zutela, desaktibatu. Gogoetak drogaren aurkako kanpaina batean ikusi zuen argia. Ahots kritiko batzuk altxatu ziren. Badakizue zertaz ari naizen.

Igaro dira urteak eta erresistentzia indarra higitzen joan zaigu. Begien parean trapu bi. Ahaztu nahi izan dugu nork sartzeko duen kaka Euskal Herrira, zergatik sartzeko duen, zein ondorio dituen gudan eta zein, hil-hurren dagoen gure herriarengan. Sinetsi dugu arrunta behar duela izan kontsumitzeak. Sinetsi, euskal gazteriak berdin emango diola arnasa askapen prozesuari sudurzulo zurituekin.

Beldur ematen digu gaiari heltzeak. Badakigulako tsunami bat altxatuko dela. Haserretuko garaia. Badakigulako gehiengoari gustatuko ez zaizkigun erabakiak hartu beharko direla. Baina iritsi da hausnar egiteko garaia. Droga kontsumoaren inguruan tentsioa sortzeko garaia. Hautsak harrotzekoa.